



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **2017KO UZTAILAREN 21EAN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA**

### **Etorri diren batzordekideak:**

### **Itziar Arratibel Imaz**

Etorri diren zinegotziak:

Jon Mikel Iglesias Otegui

Jexus Peñagarikano Labaka

Cristina Goya Amiama

**Idazkaria:** Naia Ruiz de Eguino Garcia-  
Echave

Ibarran 2017ko uztailaren 21ean udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta bitarteko idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

### **LEHENA:**

#### **1.2017KO UZTAILAREN 7KO AKTAREN ONARPENA**

2017ko uztailaren 7an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

**BAKARRA:** Onartzea 2017ko uztailaren 7an eginiko Gobernu Batzarraren akta



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **BIGARRENA:**

### **2.-2017KO UZTAILAREN 7KO HIRIGINTZA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**

#### **2.1 BELABIETA KIRODEGIKO HIDROTERAPIA GELA BERRITZEKO IGELTSERITZA LANAK ESLEITZEA**

Ibarra udalak erabaki du berritzea kiroldegiko hidroterapia gela eta horretarako beharrezkoak diren lanen esleipena egitea 2017 urtean.

Udal arkitektoak egindako memoria teknikoan eta aurrekontuan zehaztu dira lan horiek.

Antzeko lanak egin izanagatik gomendatu dituzten ondorengo 3 enpresei eskatu zaie eskaintza aurkeztea; URKAZ ERAIKUNTZAK, HILARIO GARCIA GONZALEZ IGELTSERITZA, URDAINTZI ERAIKUNTZAK S.L.

Hauek dira aukeratzeko erabili diren irizpideak:  
Eskaintza ekonomiko hoberena.  
Obrak hasteko prestutasuna

Aurkeztutako eskaintza ekonomikoak hauek dira (BEZ sartuta) :

HILARIO GARCIA GONZALEZ IGELTSERITZA	12.923,16€
URKAZ ERAIKUNTZAK	13.385,55€
URDAINTZI ERAIKUNTZAK S.L.	14.239,00€

Ikusi da udal arkitektoak egindako txostena, aipatu diren balorazio irizpideak kontuan izanda.

2017ko uztailaren 7ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LEHENENGOA: Hilario Garcia Gonzalez igeltseroari esleitzea, aurkeztutako eskaintzaren arabera, Belabieta kiroldegiko hidroterapia gela berritzeko igeltseritza lanak . Guztira 12923,16 €, %21eko BEZ barne.

Ondoko partidatik finantzatuko da: 2017.622.342.00.04.2017.

BIGARRENGOA: Erabakiaren berri ematea eskaintza aurkeztu duten hiru enpresei. (E)

## **2.2 BELABIETA KIROLDEGIKO HIDROTERAPIA GELA BERRITZEZKO ALUMINIOZKO AROTZERIAREN ESLEIPENA**

Ibarrako udalak erabaki du berritzea kiroldegiko hidroterapia gela eta horretarako beharrezkoak diren lanen esleipena egitea 2017 urtean.

Udal arkitektoak egindako memoria teknikoan eta aurrekontuan zehaztu dira aluminiozko arotzeriaren obra lanak.

Ondorengo 3 enpresei eskatu zaie eskaintza aurkeztea; PEDRO M GURRRUCHAGA PICABEA Y OTRO CB, CARPINTERIA ALUMINIOS JOSEAN , CARPINTERIA METALICA LEHIOPE S.L.

Hauek dira aukeratzeko erabili diren irizpideak:

Eskaintza ekonomiko hoberena.

Lana entregatzeko prestutasuna

Udalarekin kontratuak formalizatzeko gaitasuna izatea

Aurkeztutako eskaintza ekonomikoak hauek dira (BEZ sartuta) :

CARPINTERIA METALICA LEHIOPE S.L. entrega)	4905,34€ ( irailaren hasieran
CARPINTERIA ALUMINIOS JOSEAN 2. hamabostaldian)	4634,30€ (irailaren
PEDRO M GURRRUCHAGA PICABEA Y OTRO CB administrazioarekin ez)	4042,61€ (kontratuak

Ikusi da udal arkitektoak egindako txostena eta aipatu diren balorazio irizpideak kontuan izanda.

2017ko uztailaren 7ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LEHENENGOA: Carpinteria Metalica Lehiopé S.L. enpresari esleitzea, uztailaren 6an egindako eskaintzaren arabera, Belabieta kiroldegiko hidroterapia gela berritzeko arrotzeria lanak. Guztira 4905,34€%21eko BEZ barne.

Ondoko partidatik finantzatuko da: 2017.622.342.00.04.2017.

BIGARRENGOA: Erabakiaren berri ematea eskaintza aurkeztu duten hiru enpresei. (E)

### **2.3 EGUZKI EDER TXALETAREN LURSAIL EUSKARRIA HANDITZEKO KONTSULTA, MEDIZORROTZ TERRENOETAN**

Mari Lourdes Echavegurennek eta Ignacio Hernandez Aranzabalek udalari ondorengo kontsulta aurkeztu diote: Mendizorrotz terrenoetan dagoen Eguzki Eder txaletaren 490 m<sup>2</sup>-ko lursail euskarria handitzea.

Udal arkitektoaren kontrako txostena eta egindako kontsulta juridikoa aztertu ondoren

2017ko uztailaren 7ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENENGOA: Ez onartzea Eguzki eder txaletan dagoen lursaila handitzea indarrean dauden hirigintza eta lurralde antolaketa araudiak kontuan hartuta, ondorengo arrazoiengatik:

- Obra baimenean jarritako baldintzak ez betetzeagatik.
- Mendizorrotz baserriari loturik dagoelako eta ustiapenaren bi familietako etxea edukitzeko eskubidea kontsumitzen duelako nahiz eta Eguzki eder txaleta eta bere etxebizitza erabilera kontsolidatua egon eta erregistroan finka independentea izan inskribaturiko 490 m<sup>2</sup>-ko lursailarekin.
- Jabetza Erregistroan zatiezin gisa lur sailak ez inskribatu izana ez du galarazten udalak lur sail horien zatitzea kontrolatzea, segregazio baimenak ukatuz.
- Kontrol horren helburua txaletari loturiko partzelen kasuan landa lurra espekulazio urbanistikoaz babestea da.

BIGARRENA: Deklaratzea Eguzki eder txaleta antolamendutik kanpo, planeamenduarekin bat ez datorren kategorian, ekainaren 30eko Lurzoru eta

4

GB 20170721



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Hirigintzari buruzko 2/2006 legearen 101.3 eta 224 art.ei jarraiki. Obra baimenean jasotako partzelazio baldintzak betetzen ez direlako.

Antolamendutik kanpo egoteak, kasu honetan, ez du debekatzen etxebizitza erabilera, nahiz eta lehen erabilera baimenik ez eduki.

Ondorioz, ez da onartzen eraberritze, sendotze, bolumen handitze edo hobekuntza obrarik, ekainaren 30eko Lurzoru eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legearen 101.6 art.ari jarraiki. Eraberritze, sendotze, bolumen handitze edo hobekuntza obrarik egiteko legalizazio proiektu bat beharko luke posible izanez gero.

Dena den ez dira horrelako obratzat joko etxebizitza gutxieneko osasungarritasun baldintzetan mantentzeko beharrezko diren obrak eta hirugarrenei kalteak ez sortzera zuzendutakoak.

**HIRUGARRENA:** Jakinaraztea Plan Orokorra indarrean sartzen denean (dagoen moduan bere erredakzioa mantentzen bada) onartuko dela Mendizorrotz baserriarekiko lokabetzea eta lursailak zatitzeko baimena, betiere, ondorengo baldintzak betetzen badira:

- a) Hiri lurzoru urbanizaezinean indarrean dauden legezko xedapenetan ezarritako irizpideak errespetatzen badira.
- b) Bermatuta geratzen bada ustiaketako terreno guztiak finka nagusira lotuta daudela eta bere bideragarritasuna bermatzeko aski direla. Helburu horretarako bakarrik kontuan hartuko dira erregistroan baserriari eta ustiapenari loturiko lursailak eta bideragarritasun proiektu baten bidez justifikatu beharko da ustiapenaren bideragarritasuna. (Tramitean dagoen Arau orokorretako 69.3 F artikulua)

Plan orokorra indarrean sartzen denean bigarren puntuan aipaturiko antolamendutik kanpoko deklarazioa bertan behera uzteko legalizazio proiektu bat aurkeztu beharko da.

## **2.4 EUSKALERRIA 63. BEHEA BILTEGI BAT GAITZEKO UDAL BAIMENA**

2017ko ekainaren 21ean biltegi batentzat eraikinaren behea egokitzeko gauzate- eta Jarduera-proiektua aurkeztu du Francisca Tejeria and.ak.

Proiektua Jabier Telleria Elorz arkitektoak sinatu du eta 2017ko ekainaren 6ko Arkitektoen Elkargoaren bisatua du. Lanen aurrekontua 13.224, 74 eurokoa da. (PEM)

2016ko urriaren 14an Ibarra Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen Euskal Herria 63ko erdisotoan 2,05 m-ko altuera librea izango zuen behe oineko lokala habilitatzeko aldeko kontsulta ematea.



IBARRAKO UDALA  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Udal arkitektoaren baldintzaturiko txostena irakurri da.

Kontuan harturik 1990 urtean garajea egiteko lizentzia eman zela lokal horretan.

Foru Aldundiko ondare sailari egindako kontsulta ez loteslearen berri izan ondoren.

2017ko uztailaren 7ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### ERABAKIA

LEHENENGOA: Biltegi erabilerarako behe oinaren obra baimena ematea ondorengo baldintzekin:

- Maldan erortzeko arriskurik ez egoteko portalerako bidean eta oinezkoen bidean lagungarri izateko eskubanda jartzea % 6tik gorako luzera aldapan.
- Ateen tamaina eraikinaren goiko solairuetako altxaeraren ordenazioari egokitu beharko zaio eraikinak duen ondare interesarengatik.
- Fatxadaren konposizioa errespetatzen dituen irekierak antolatzea eskatzen da ondare sailak azaldutako irizpideekin. Irizpideak honako hauek dira: irekierak goi solairuetan dagoen konposizioari erantzun beharko dio eta fatxadaren ekialdeko arintasuna eta mendebaldeko konposizio pisutxua kontuan izatea.
- Irizpide horiei erantzunda ondorengo aukera gomendatzen da: biltegirako atea balkoien azpian jartzea bigarren planoan, hau da, bigarren zutabeen planoan portxe bat sortuz eta beste bolumenean oinezkoentzako atea.

BIGARRENA: Obrak hasi aurretik udaletxean aurkeztuko da obra baldintzetan jarritako aldaketak jasotzen dituen agiria: altxaera berriak, eskudela eta aurrekontu eguneratua.

### **2.5 KONTRATAZIO ZUZENA HIDROTERAPIA GELAREN BERRITZERAKO BEHARREZKOAK DIREN SABAI AIZUNA ALDATU ETA AIRE ESTRAKZIOA EGOKITZE LANETAN.**

Ibarrako udalak erabaki du berritzea kiroldegiko hidroterapia gela eta horretarako beharrezkoak diren obra lanen esleipena egitea 2017. Urtean. Lan horien artean komenigarria ikusi da zenbait lan zuzenean esleitzea.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

**SABAI AIZUNA ALDATZEA.**

Hidroterapia aretoaren azpialdean dago eta sparen instalazio eta mantentzea bermatzeko beharrezkoa da aldatzea. Lan horietan espezializaturik dagoen enpresa zuzenean kontratatzea erabaki da, ez baita behar besteekin lan segurtasun koordinaziorik.

Azterturiko aukerak: 60x120 plaka binilikoak, aluminiozko txapak.

Bi enprekin landu dira aukera desberdinak: Xingola eta Iñaki Gogorza.

**Xingola:**

Perfileria berria eta plaka binilikoak 120x60	508,20 euro	
Perfileria berria eta aluminiozko laminak	1210,00euro	( ez dute gomendatzen)

**Gogorza/ Hilario:**

Perfileria berria eta plaka binilikoak 120x60	484,48 euro	
Txapa perforada	708,09	( ez dute gomendatzen).

**AIRE ESTRAKZIOA EGOKITZEA**

Lan horietan espezializaturik dagoen enpresa zuzenean kontratatzea erabaki da, ez baita behar besteekin lan segurtasun koordinaziorik. Bestetik, kiroldegiko aireztapenaren instalazioa egin eta aldaketak egin dituen enpresari aurrekontua eskatu eta obra txikia izanik berari zuzenean esleitzea proposatzen dut.

2017ko uztailaren 7ko Hirigintza Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Sabai aizuna lanen kontratazioaren ( azterturiko bi enpresena) eskaintza ekonomikoaren aldea txikia dela eta Xingola enpresa lan horietan espezializatua dagoela kontuan harturik, kontratazio zuzena berarekin egitea 508,20 euroan.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **HIRUGARRENA:**

### **3. 2017KO UZTAILAREN 18KO KULTURA ETA GAZTERIA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**

#### **3.1 SAN BARTOLOMEAK 2017: EGITARAUA ETA AURREKONTUAREN AURREIKUSPENA**

Festa Batzordeak abuztuaren 23tik 27ra bitartean ospatuko diren herriko jaietarako landu duen egitaraua eta aurrekontuaren aurreikuspena aztertu du Batzordeak eta bere proposamena aztertu da.

2017ko uztailaren 18ko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENENGOA: Zehazten den Sanbartolome jaietarako egitaraua onartzea:

#### **SANBARTOLOMEAK 2017: Egitaraua**

##### **\* ABUZTUAK 23, ASTEAZKENA**

- **11:30:** XXIX. San Bartolome **bozeto lehiaketako eta II. Diseinu lehiaketako sari-banaketa**, San Bartolome plazan.
- **11:45:** **Haurren eta gaztetxoek koadrilak plazan elkartuko dira.**
- **12:00:** **Jaien hasiera: Suziri jautiketa Sendi-Ekintza Elkartearen eskutik** eta Bartola eta Bartoloren jaitsiera kiroldegitik plazaraino. Ondoren, **Ibarrako, Zizurkilgo, Villabonako eta Añorgako erraldioen eta buruhandien konpartsarekin** batera, haur eta gaztetxoek koadrilen kalejira herrian barrena.
- **Ondoren: Ibarrako Merkatarien Elkarateak eskainitako hamaiketako**, San Bartolome plazan.
- **14:30:** **Haurren eta gaztetxoek bazkaria** San Bartolome plazan, herriko gurasoen eskutik.
- **16:00:** **Haurrentzako jokoak** Txiribitu Astialdi taldearen eskutik, San Bartolome plazan.
- **18:00:** **Ibarrako, Zizurkilgo, Villabonako eta Añorgako erraldioen eta buruhandien konpartsa** herriko kaleetan zehar.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- **19:00: San Bartolome bezperako kanpai-jotzea eta salbea**, San Bartolome elizan.
- **21:00: Elkartasun afaria**, San Bartolome plazan.
- **22:30: Zezensuzkoa**, San Bartolome plazan.  
Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.
- **23:30: EZTEN GIRO** taldearekin dantzaldia, San Bartolome plazan.

**\* ABUZTUAK 24, OSTEguna, San Bartolome eguna.**

- **09:00: Diana** herriko txistularien eskutik.
- **10:30: Meza nagusia**, San Bartolome elizan.
- **11:30: Haurren danborrada** Iraunkorrak txarangak alaituta.
- **12:00: Piparrak eta tomateak**, San Bartolome plazan, herriko baratzezainek, Zubelzu Piparrak etxeak, Ibarlur Piparra Kooperatibak eta Txumitxak eskaini eta zerbitzatua.
- **18:00: Haurrentzako paseoak zalgurdian** Asier Lopetegiren eskutik, San Bartolome plazan.
- **18:00: Trikitalariak**, San Bartolome plazan.
- **19:00: Helduen danborradaren entsegua**, Azkue auzoan.
- **19:30: Bertsolarien emanaldia: Ibarako bertso-eskolako ikasleak, Oihana Iguaran, Oihane Perea, Andoni Egaña, Amets Arzallus eta Aritz Mugika**, Emeterio Arrese parkean.
- **22:30: Zezensuzkoa**, San Bartolome plazan.  
Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.
- **22:45: Helduen danborrada** Iraunkorrak txarangak alaituta.
- **23:30: LAKET** taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

**\* ABUZTUAK 25, OSTIRALA.**

- **09:00: Diana, GIROARTE** dultzaina taldearen eskutik.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- **11:00: “Pernando Amezketarra Ibarra” kale-antzerkia**, herriko kaleetan zehar, Hauspoa Kultur Elkartearen eskutik.
- **14:30: Txekor-jatea**, Emeterio Arrese parkean, Sendi-Ekintza elkartearen eskutik.
- **17:00: Apar festa.**
- **19:00: Herri-kirolak**, Ibarra Sokatira Taldearen eskutik, San Bartolome plazan.
- **22:30: Zezensuzkoa**, San Bartolome plazan.  
Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.
- **22:45: DJ ANDONI**ren emanaldia, Txumitxa atzealdeko plazan.
- **23:00: THE HASTELEN’S eta RIOT PROPAGANDA** taldeen emanaldia, San Bartolome plazan.

**\* ABUZTUAK 26, LARUNBATA, kirolaren eguna**

- **09:00: Diana**, herriko trikitilarien eskutik.
- **10:00: Haurrentzat 3x3 futbol txapelketa**, Emeterio Arrese parkean Lauburu Kirol Elkartearen eskutik.
- **11:00: Erretiratuentzako hamaiketako**, Bizi-Nahi elkartearen.
- **11:30: Toka eta bola txapelketa**, Emeterio Arrese parkean Ibarra Kirol Elkartearen eskutik.
- **11:30: Haur eta gaztetxoentzat toka eta bola txapelketa** (6-12 urtekoek heldu batekin bikoteka parte hartu beharko dute), Emeterio Arrese parkean Ibarra Kirol Elkartearen eskutik.
- **11:30: Xake gunea**: Bat-bateko xake partiden erakustaldia, ikastaro txikia, xake erraldoia, eta abar, Emeterio Arrese parkean, Ibarra Xake Elkartearen eskutik.
- **12:00: Herritarren txaranga** kaleetan zehar.
- **12:30: Ibarra II. pipar frijitze lehiaketa**, San Bartolome plazan, 789 taldearen eskutik.
- **17:00: Pilota partidak**, Belabieta pilotalekuan, Sendi-Ekintza pilota eskolaren eskutik:
  - Emakumezkoak:
  - Gizonezkoak:
- **19:00: Emakumezkoen giza proba: IBARRA // EMARRI (Astigarraga)**, Euskal Herria kalean, Ibarra Sokatira Taldearen eskutik.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- **20:00: ERRUKIRIK GABE** taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.
- **22:30: Zezensuzkoa**, San Bartolome plazan.  
Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoko txinpartekin erre baitaiteke.
- **22:45: Alurr Dantza Taldearen “Berria”** emanaldia, Emeterio Arrese parkean.
- **23:30: DJ ANDONI**ren emanaldia, erretiratuen elkartearen aurrealdeko plazan.
- **00:00: IRATZAR** taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.

**\* ABUZTUAK 27, IGANDEA: Koadrilen eguna.**

- **09:00: Diana, GIROARTE** dultzaina taldearen eskutik.
- **11:45: Koadrilak San Bartolome plazan elkartuko dira.**
- **12:00: Koadrila berriari ongi-etorria: Koadrilen txupinazoa eta brindisa** plazan.
- **Ondoren: Koadrilen kalejira BONBERENEA** txarangarekin *eta GIROARTE* dultzaina taldearekin batera.
- **14:30: Koadrilen bazkaria “Ze beidatzek” koadrilak antolatuta**, Emeterio Arrese parkean.
- **16:30: DJ Jotatxo**, Emeterio Arrese parkean.
- **19:00: “Elektrotxufla” elektrotxarangarekin koadrilen kalejira** herrian zehar.
- **22:30: Zezensuzkoa**, San Bartolome plazan.  
Gurasoei jakinarazten zaie zezensuzkoa borondatezko jarduera dela eta honek arriskuak dakartzala, eta tutoreak direla adingabeei gertatzen ahal zaizkien ezbeharren arduradunak. Parte hartuz gero, balio handirik gabeko sintetikoa ez den arropa ekartzea gomendatzen dugu, zezensuzkoaren txinpartekin erre baitaiteke.
- **23:00: OZTOPO** taldearen emanaldia, San Bartolome plazan.
- **00:00: “Itto ta kitto” koadrilak piparra** osasun-etxetik San Bartolome plazaraino eramango du eta, ondoren **erre egingo du**.
- **00:45: ZESUMA** taldearekin dantzaldia, San Bartolome plazan.

**BIGARRENGOA:** Zehazten den Sanbartolome jaietarako aurrekontuaren aurreikuspena onartzea:

<b>KONTZEPTUA</b>	<b>AURREISKUPENA</b>
-------------------	----------------------



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

<b>MUSIKA TALDEAK</b>	<b>24.283,50 €</b>
<b>Ezten Giro</b>	760,00 €
<b>Laket</b>	1.452,00 €
<b>The Hastelens</b>	800,00 €
<b>Riot Propaganda</b>	10.285,00 €
<b>DJ Andoni (Txumitxan saioa)</b>	363,00 €
<b>DJ Andoni (Jubilatueta saioa)</b>	363,00 €
<b>Iratzar</b>	907,50 €
<b>Errukirik gabe</b>	353,00 €
<b>Zesuma</b>	1.250,00 €
<b>Musikoen afariak</b>	600,00 €
<b>Musikoen edariak</b>	250,00 €
<b>Soinu eta argi ekiptoaren alokairua</b>	6.900,00 €
<b>KIROLAK</b>	<b>8.527,08 €</b>
<b>Giza-proba</b>	<b>1.200,00 €</b>
Taldee laguntza	800,00 €
Afaria	400,00 €
<b>Herri-kirolak</b>	<b>1.200,00 €</b>
<b>3x3 futbol txapelketa:</b>	<b>1.182,00 €</b>
Kamisetak (120)	780,00 €
Kartelak	30,00 €
Trofeoak	372,00 €
<b>Pilota partidak</b>	<b>1.420,00 €</b>
Pilotariak	1.400,00 €
Pilota partidatarako ura	20,00 €
<b>Toka eta bola txapelketa:</b>	<b>1.271,08 €</b>
* Haurrentzat goxokiak	100,00 €
* Laguntzaileei hamaiketakoa	100,00 €
* Harea	30,00 €
* Bi bola berri	421,08 €
* Materiala	20,00 €
* Diru-sariak eta trofeoak	600,00 €
<b>Txirriindulari lasterketa diru-laguntza:</b>	<b>2.224,00 €</b>
* Gipuzkoako Txirriindulari Federakuntza	900,00 €
* Lore-sorta	40,00 €
* Garaikurrak eta txapela	400,00 €
* Laguntzaileei hamaiketakoa	100,00 €



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

* Kartelak	684,00 €
* Txirrindularitza Federazioko lizentzia	100,00 €
<b>Xake erakustaldia:</b>	<b>30,00 €</b>
* Monitoreak (1 x 2 ordu x 15,00 €)	30,00 €
<b>MUSIKARIAK</b>	<b>7.560,00 €</b>
Dultzaineroak Giroarte	1.500,00 €
Herriko musikariak dianak	500,00 €
Gaztetxoek txaranga	600,00 €
Herritarren txaranga	600,00 €
Iraunkorrak txaranga (helduen dan.)	1.210,00 €
Iraunkorrak txaranga (haurren dan.)	1.210,00 €
Bonberenea txaranga	1.500,00 €
Txistularia (San Bartolome)	60,00 €
Trikitilariak	380,00 €
<b>JARDUERAK</b>	<b>2.850,00 €</b>
Bertso saioa	1.400,00 €
Buruhandiak eta erraldoiak	450,00 €
Erraldoien konpartsa	1.000,00 €
<b>ALURR JAIALDIA</b>	<b>1.947,00 €</b>
Materiala	200,00 €
Kartelak	115,00 €
Esku programak	50,00 €
Alurr dantza taldea afaria (20 pertsona)	130,00 €
Soinua eta argiak	1.452,00 €
<b>KOADRILEN EGUNA</b>	<b>4.300,00 €</b>
Helduen koadrilei diru-laguntza	2.000,00 €
DJ Jotatxo	150,00 €
Elektrotxufla txaranga	1.200,00 €
Musikoen bazkaria	750,00 €
Haurren koadrilei diru-laguntza	200,00 €
<b>FESTA HERRIKOIA</b>	<b>1.240,00 €</b>
Ardo goxoa	40,00 €
Materiala	300,00 €
Erroskilak	150,00 €
Hamaiketakoa	350,00 €
Trikitilariak	100,00 €



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Panperoa (musikoen bazkaria: 12x25,00 €)	300,00 €
<b>DANBORRADA</b>	<b>1.225,00 €</b>
Haurren danborradarako gozokiak	125,00 €
Danborradarako makilak, danborrak...	150,00 €
Ura	70,00 €
Materiala (konfetiak, ...)	180,00 €
Helduen danborrada laguntza	400,00 €
Karroza mantenua	300,00 €
<b>BARTOLOME EGUNA</b>	<b>1.500,00 €</b>
Parrokia-elkartearen hamaiketakoa	400,00 €
Piparra eta tomateak	700,00 €
Ardoa	400,00 €
<b>AZPIEGITURA ETA ZERBITZUAK</b>	<b>19.890,00 €</b>
Anbulantzia zerbitzua	2.200,00 €
Aironflox txuria eta mahaietako papera	175,00 €
Argazkien errebelatua	400,00 €
Argazki albumak	100,00 €
Agerremedia argazkilaria	1.900,00 €
Argindarra boletinak	1.200,00 €
Bailak, toldoak.. (Alki Anoeta)	1.500,00 €
Bailatzeko zinta	200,00 €
Basura poltsak	100,00 €
Bideoa: Berdintasun saila	2.500,00 €
Butanoak	250,00 €
Elektrizitate kontsumoa (plaza)	400,00 €
Elektrizitate kontsumoa (Emeterio Arrese)	200,00 €
Elektrizitate materiala	300,00 €
Emeterio Arreseko txaboletarako materia	100,00 €
Errepidea ixteko tasa (Eusko Jauriaritza)	20,00 €
Garbiketak	175,00 €
Garbigailuak alokatzea	500,00 €
Garbigailuentzat xaboa	50,00 €
Giltzen kopiak	80,00 €
Goxokiak (jaien hasiera)	100,00 €
Harea	50,00 €



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Ikurrinak (zintzilikatzekoak)	150,00 €
Izotza	50,00 €
Komunen alokairua	2.300,00 €
Komunetarako materiala	130,00 €
Kontenedoreak (harea)	100,00 €
Maskuriak	120,00 €
Megafonia	2.100,00 €
Papera eta brigadarako hainbat material	200,00 €
Pilak	20,00 €
Seinalizazioak	50,00 €
Serbiletak...	50,00 €
Suziriak	250,00 €
Tintoreria	100,00 €
Trofeoak	600,00 €
Udalaren errepresentazio gastuak	300,00 €
Zezensuzkoa afaria	130,00 €
Zezensuzkoarentzat kargak	740,00 €
<b>EGITARAUA</b>	<b>1.250,00 €</b>
Bozeto lehiaketa sariak	125,00 €
Diseinu lehiaketa saria	300,00 €
Diseinu lehiaketa PFEZ erretentzioa (%19)	75,00 €
Publizitatea	300,00 €
Programa banaketa	450,00 €
<b>HAMAIKETAKOAK</b>	<b>860,00 €</b>
Jubilatuak	460,00 €
Merkatarien elkarte laguntza	400,00 €
<b>HAURRENTZAT JARDUERAK</b>	<b>1.106,00 €</b>
Haurrentzako jokoak (Txiribitu)	200,00 €
Apar jaia	506,00 €
Zaldi-gurdian paseoak	400,00 €
<b>EZUSTEKOAK</b>	<b>1.800,00 €</b>
<b>SGAE EGILE ESKUBIDEAK:</b>	<b>2.000,00 €</b>
2017ko egile eskubideak	2.000,00 €
<b>GUZTIRAKO GASTUA</b>	<b>80.338,58 €</b>



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

<b>DIRUSARRERAK</b>	
Salmentak (paineluak...)	<b>250,00 €</b>
Kutxabank	<b>240,00 €</b>
Ferietako salerosleak (Udal tasa)	<b>2.000,00 €</b>
<b>Guztirako sarrerak</b>	<b>490,00 €</b>

HIRUGARRENGOA: Erabakiaren berri kontu-hartzailetzari ematea.

### **3.2 IBARRAKO KULTUR TALDE ETA ELKARTEEI DIRU-LAGUNTZAK 2017**

2017ko ekainaren 14ko 113. GAOn Ibarra irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2017. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak argitaratu ziren. Diru-laguntza eskaerak aurkezteko epea uztailaren 14an amaitu zelarik, Batzordeak, aipatutako oinarriari jarraiki, aurkeztu diren eskaerak aztertu zituen.

2017ko uztailaren 18ko Kultura eta Gazteria Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENENGOA: Deialdira aurkeztu diren Ibarra kultur talde eta elkarteei honako diru-laguntzak ematea onartzea:

- o **Urteko programazioa gauzatzeko diru-laguntzak:**

<b>TALDEA</b>	<b>2017</b>	<b>60%</b>	<b>40%</b>
PARROKIKO KORUA	1.100,00 €	660,00 €	440,00 €
SENDI-EKINTZA	400,00 €	240,00 €	160,00 €
HAUSPIBARRA	8.400,00 €	5.040,00 €	3.360,00 €
ALURR DANTZA TALDEA	7.700,00 €	4.620,00 €	3.080,00 €
<b>GUZTIRA</b>	<b>17.600,00 €</b>	<b>10.560,00 €</b>	<b>7.040,00 €</b>

*Orain laguntzaren %60a jasoko da eta 2018ko otsailaren 23a baino lehen laguntzaren %100a zuritu beharko da, horretarako, 2017ko ekainaren*





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

14an 113. GAO. Argitaratutako “Ibarrako irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2017. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak” oinarrietan diru-laguntzak zurrizko ezarritako betekizunak bete beharko dira. Batzordeak justifikazioari onespina emandakoan, geratzen den laguntzaren % 40a ordainduko da. Era berean, talde guztiei jakinarazten zaie udaleko armarrria agertu behar dela egiten diren ohar eta kartel guztietan.

o **Kultur jarduera zehatzak gauzatzeko diru-laguntzak:**

TALDEA	JARDUERA	2017
SENDI-EKINTZA ELKARTEA	Elkartearen 50. urteurreneko ospakizunak (urriak 21)	2.400,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.400,00 €</b>

*Orain laguntza osoa jasoko da eta jarduera burutu ondorenko 45 egun naturaletako epean, abenduaren 5erako hain zuzen ere, zurrizko beharko da, horretarako, 2017ko ekainaren 14an 113. GAO. Argitaratutako “Ibarrako irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2017. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak” oinarrietan diru-laguntzak zurrizko ezarritako betekizunak bete beharko dira. Era berean, talde guztiei jakinarazten zaie udaleko armarrria agertu behar dela egiten diren ohar eta kartel guztietan.*

o **Piparraren sustapenerako diru-laguntzak:**

TALDEA	JARDUERA	2017
HAUSPIBARRA KULTUR ELKARTEA	Ezpeletako biper festan Ibarrako piparra (urriak 28-29).	2.000,00 €
<b>GUZTIRA</b>		<b>2.000,00 €</b>

*Orain laguntza osoa jasoko da eta jarduera burutu ondorenko 45 egun naturaletako epean, abenduaren 13rako hain zuzen ere, zurrizko beharko da, horretarako, 2017ko ekainaren 14an 113. GAO. Argitaratutako “Ibarrako irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2017. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak” oinarrietan diru-laguntzak zurrizko ezarritako*



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

*betekizunak bete beharko dira. Era berean, talde guztiei jakinarazten zaie udaleko armarrria agertu behar dela egiten diren ohar eta kartel guztietan.*

- **Azkueko dantza lokalaren mantenurako diru-laguntzak:**

TALDEA	2017	60%	40%
<b>Alurr Dantza Taldea: Azkueko lokala diru-laguntza</b>	2.000,00 €	1.200,00 €	800,00 €
<b>GUZTIRA</b>			

*Orain laguntzaren %60a jasoko da eta 2018ko otsailaren 23a baino lehen laguntzaren %100a zuritu beharko da, horretarako, 2017ko ekainaren 14an 113. GAOn. Argitaratutako “Ibarrako irabazi-asmorik gabeko kultura talde eta elkarteei 2017. urtean garatuko dituzten jarduera eta egitarauetarako diru-laguntzak emateko oinarriak” oinarrietan diru-laguntzak zuritzeko ezarritako betekizunak bete beharko dira. Batzordeak justifikazioari onespena emandakoan, geratzen den laguntzaren % 40a ordainduko da. Era berean, talde guztiei jakinarazten zaie udaleko armarrria agertu behar dela egiten diren ohar eta kartel guztietan.*

**BIGARRENGOA:** Ibarrako kultur elkarte eta taldeei dagokien urteko programazioa garatzeko guztirako diru-laguntzen 17.600,00 euroko gastua eta kultur jarduera zehatzak gauzatzeko diru-laguntzen 2.400,00 euroko gastua 1.0000.430.334.00.00 2017 “Kultur taldeei transferentziak” kontu-sailari egozte.

**HIRUGARRENGOA:** Piparraren sustapenari dagokion diru-laguntzaren 2.000,00 euroko gastua 1 0000.430.414.00.02 2017 “Piparraren sustapena transferentziak” kontu-sailari egozte.

**LAUGARRENGOA:** Dantza lokalaren mantenuari dagokion diru-laguntzaren 2.000,00 euroko gastua 1.0000.434.334.20.00 2017 “Dantza hitzarmena transferentzia” kontu-sailari egozte.

**BOSGARRENGOA:** Erabakiaren berri kontu-hartzaitzari ematea.

**SEIGARRENGOA:** Erabakiaren onuradunei jakinaraztea.

#### **4.- 2017KO UZTAILAREN 19KO KIROL BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

#### **4 1.-KIROL TALDEAK:2017KO DIRU-LAGUNTZAK**

Ikusita, 2017ko maiatzaren 3an egindako Kirol batzordeak Kirol arloko diru laguntzak arautzen dituzten oinarriak onartu zituela.

Ikusita, epea ireki eta honako diru-laguntza eskaerak eta diru-kopuruak aurkeztu direla:

##### A. Urteko jarduerak

Sendi ekintza pilota eskola	2.880,00 €
Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Kluba	4.000 €
Sokatira taldea:	11.000 €
Lauburu Kirol Elkarteak	Ez du zehazten

##### B. Jarduera puntualak:

Lokatzetan Kirol taldea: Mendi duatloia	1.800 €
Ibarrako Kirol elkarteak: Bolo eta toka txapelketa	975 €
Sokatira taldea: Euskadiko 8X8 goma gainean	700 €

Ikusita, Kirol diru-laguntzetarako dira partidan 48.000 euro daudela.

Ikusita, eskaera bakoitzak jasotako puntuazioa:

##### A. Urteko jarduerak

Sendi ekintza pilota eskola	290 puntu
Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Kluba	279,25 puntu
Sokatira taldea:	151,75 puntu
Lauburu Kirol Elkarteak	733,25 puntu

##### B. Jarduera puntualak:

Lokatzetan Kirol taldea: Mendi duatloia	35 puntu
Ibarrako Kirol elkarteak: Bolo eta toka txapelketa	36 puntu
Sokatira taldea: Euskadiko 8X8 goma gainean	55 puntu

Ikusita, Udalak ezin duela elkarteek beraiek eskatutako diru kopurua baino gehiago diruz lagundu.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

2017ko uztailaren 19an buruturiko Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### ERABAKIA

LEHENA: Ematea honako diru-laguntzak Kirol arloan:

#### A. Urteko jarduerak

Sendi ekintza pilota eskola	2.880,00 €
Gimnasia Erritmikoa Belabieta Kirol Kluba	4.000 €
Sokatira taldea:	7.455,72 €
Lauburu Kirol Elkarte	30.189,28 €

#### B. Jarduera puntualak:

Lokatzetan Kirol taldea: Mendi duatloia	1.800 €
Ibarrako kirol elkarte: boloak eta toka	975 €
Sokatira taldea: Euskadiko 8X8 goma gainean	700 €

BIGARRENA: Aipatu diru-laguntzak 430.341.00.00 partidatik ordaintzea honela: onartutako kopuruaren %60 onarpen honekin eta %40 justifikazioa onartutakoan.

HIRUGARRENA: Aipatu akordioa interesatuei (E) eta Kontuhartzailletza arloari (E) jakinaraztea.

## **4 2.-2017-2018 IKASTARO-ESKAINTZAREN ONARPENA**

Teknikariak BPXPORT enpresak 2017-2018 ikasterterako egindako ikastaroen eskaintza aurkeztu da:

<b>Kirol ikastaroak</b>
-------------------------



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Ikastaroak	Egunak	Orduak
CYCLING	Astelehena-Asteazkena	19:00 - 20:00
		20:00 - 21:00
	Astearte-Osteguna	09:30 - 10:30
		18:30 - 19:30
		19:30 - 20:30
		20:30 - 21:30
PILATES	Astelehena-Asteazkena	16:30 - 17:30
	Astearte-Osteguna	10:00 - 11:00
		19:30 - 20:30
ZUMBA	Astearte-Osteguna	18:30 - 19:30
JUNPFIT	Astelehena-Asteazkena	18:00 - 19:00
	Astearte-Osteguna	11:00 - 12:00
ABDOMINALAK HIPOPRESIBOAK	Astelehena-Asteazkena	20:00 - 20:45
TONIFIKAZIOA	Astelehena-Asteazkena	19:00 - 20:00
YOGA	Astelehena-Asteazkena	11:00 - 12:30 *
	Astearte-Osteguna	16:30 - 18:00
ESKALADA	Astelehena-Asteazkena	17:30 - 19:00 *
	Astearte-Osteguna	17:30 - 18:30
3. ADINA	Astearte-Osteguna	9:00 - 10:00
JUDO	Astelehena - osteguna	16:45 - 17:45
		18:00 - 19:00

2017ko uztailaren 19an buruturiko Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

LEHENA: Onartzea BPXPORT enpresak aurkeztutako ikastaro eskaintza

BIGARRENA: Ikastaro hauen zabalkundea honela egitea: irailaren 4an Udaleko eta Kiroldegiko web orrietan zintzilikatzea eta herriko buzoietan guztietan ikastaro hauen ale bat uztea.

#### **4.3.-2017-2018 IKASTAROEN TASAK ETA ORDAINKETA MODUA**

Ikusita, joan den urtean ikastaroak ordaintzeko modua aldatu zela (urtean hiru alditan kobratzetik, urtean behin kobratzera) eta kobraketa modu honek herritarren artean kezkak sortu dituela.

Ikusita, zergabilketarekin hitz egin ondoren, kobraketak bi alditan egin ahal direla.

Ikusita, azken urteetan Kirol ikastaroen tasak mantendu egin dituela Udalak krisia zela eta.

Ikusita, Udalak tasak igotzeko asmoa duela.

Ikusita, urteko batz besteko KPIa 2.2an dagoela.

2017ko uztailaren 19ko Kirol Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### **ERABAKIA**

LEHENA: Ikastaroen kobraketa bi alditan egitea: lehena 2017ko azaroan eta bigarrena 2018ko otsaila/martxoan.

BIGARRENA: Ikastaroetako tasak KPIa igotzea.

#### **BOSGARRENA:**

#### **5.- 2017KO EKAINAREN 23KO GIZARTE POLITIKAK ETA POLITIKA FEMINISTA ETA ANIZTASUNA BATZORDEAREN INGURUAN HARTURIKO ERABAKIAK**



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

## **5.1 GIZARTE ZERBITZUEN ALORRETIK ELKARTEEI BIDERATUTAKO UDAL DIRU-LAGUNTZAK**

2017ko maiatzaren 18an, Ibarra Udaleko Gizarte Zerbitzuen diru-laguntzak emateko oinarriak argitaratu ziren GAOn.

Eskaerak aurkezteko epea, ekainaren 19an amaitu zen.

Hiru atal aurreikusten ziren: Batetik, elkarteei urteroko jardueri aurre egiteko, bestetik lankidetzak proiektuak garapen bidean diren herrialdeentzako, eta azkenik, Jubilatuen Elkarteentzat.

### **1.- ELKARTEAK**

Aurten, 10 Giza elkarteak aurkeztu dituzte proiektu eta eskaerak. Elkarteek udal araudiak eskatzen dituen baldintza guztiak betetzen dituzte

2017	IBARRAKO UDALA. GIZARTE ALORRETIK BIDERATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK							3.250,00 €	
	ELKARTEA	CIF	GIZA ARLOA	PUNTUAZIOA			2016	2017	
HARTZAILEAK				JARDUERA	ELKARTEA	DENERA			
GIPUZKOAKO ODOL EMAILEAK	G-20040838	OSASUNA	10	45	5	60	300,00 €	300,00 €	
IZAN FUNDAZIOA	G-20093415	DROGOMENPEKOTASUNA	10	45	5	60	350,00 €	350,00 €	
SAN BARTOLOME PARROKIA	R-20000285C	OSASUNA	10	45	10	65	300,00 €	300,00 €	
ADEMG	G-20515623	OSASUNA	5	45	5	55	250,00 €	250,00 €	
AECC	G-28197564	OSASUNA	10	45	5	60	250,00 €	250,00 €	
ELIKAGAIEN BANKUA	G-20605242	BAZTERTUAK	10	45	10	65	450,00 €	450,00 €	
ACABE	G-20501409	OSASUNA	10	45	5	60	400,00 €	400,00 €	
ORTZADAR	G-75068874	EZGAITASUNA	5	45	5	55	400,00 €	400,00 €	
ATECE	G-20523635	EZGAITASUNA	5	45	5	55	- €	300,00 €	
BIZI BIDE	G-20818373	OSASUNA	5	45	5	55	- €	250,00 €	
								3.250,00 €	

2017ko ekainaren 23ko Gizarte Politikak eta Politika Feminista eta Aniztasuna Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

**ERABAKIA**

**LEHENENGOA:** Onartzea honako diru-laguntzak ematea



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

2017	IBARRAKO UDALA. GIZARTE ALORRETIK BIDERATUTAKO DIRU-LAGUNTZAK						3.250,00 €	
	CIF	GIZA ARLOA	HARTZAILEAK	JARDUERA	ELKARTEA	DENERA	2016	2017
ELKARTEA								
GIPUZKOAKO ODOL EMAILEAK	G-20040838	OSASUNA	10	45	5	60	300,00 €	300,00 €
IZAN FUNDAZIOA	G-20093415	DROGOMENPEKOTASUNA	10	45	5	60	350,00 €	350,00 €
SAN BARTOLOME PARROKIA	R-20000285C	OSASUNA	10	45	10	65	300,00 €	300,00 €
ADEMG	G-20515623	OSASUNA	5	45	5	55	250,00 €	250,00 €
AECC	G-28197564	OSASUNA	10	45	5	60	250,00 €	250,00 €
ELIKAGAIEN BANKUA	G-20605242	BAZTERTUAK	10	45	10	65	450,00 €	450,00 €
ACABE	G-20501409	OSASUNA	10	45	5	60	400,00 €	400,00 €
ORTZADAR	G-75068874	EZGAITASUNA	5	45	5	55	400,00 €	400,00 €
ATECE	G-20523635	EZGAITASUNA	5	45	5	55	- €	300,00 €
BIZI BIDE	G-20818373	OSASUNA	5	45	5	55	- €	250,00 €
								3.250,00 €

**BIGARRENGOA:** Ordainketa 430.231.00.00 2017 partidatik egingo da.

**HIRUGARRENGOA:** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza sailari

**LAUGARRENGOA:** Elkarteari erabakia jakinaraztea

## 2.- LANKIDETZA

Aurten, hiru gobernuz kanpoko erakundek aurkeztu dituzte proiektuak. Horietatik bik, ez dute betetzen deialdi espezifikoan, bere bigarren artikuluan, jasota dagoen baldintza, hau da, elkaratearen egoitza soziala Ibarra inskribatua egotea. Beraz, "Ayudemos a un niño" eta DOA elkarateak ez dira baloratzen eta kanpoan geratuko dira. Bestea, Ibaratik Misio Taldea da. Elkarateak, udal araudiak exijitzen dituen baldintza guztiak betetzen ditu.

Ibaratik Misio Taldeak, ohiko hiru proiektu aurkeztu ditu:

- India: Bordumsa, arunachal Pradesk. "Kontsultategi baten eraikuntza" Oinarrizko osasuna bermatzeko tokian tokiko arreta. Ihesa duten neskatoen arreta. Urteko programazioa.
- Ecuador: Santa Rosa del Oro. "familia solidarioa" izeneko aurrezki eta kreditu kooperatiba eraikitzea . Tokiko biztanlegoaren ahalduntzea eta garapena bideratzeko aurrezki eta kreditu kooperatibaren sustapena.





**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

- Honduras. Suyapa. Bethel, "SUYAPA auzunean etxeak eraiki, ekonomia jasangarria bultzatzeko, etxe bakoitzean baratza bat sortuta"

laz, 19.200 euroko diru-laguntza jaso zuten. Aurten, 20.000 euro ematea proposatu da.

2017ko ekainaren 23ko Gizarte Politikak eta Politika Feminista eta Aniztasuna Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Onartzea Ibaratik Misio Taldeari 20.000 eurotako diru laguntza ematea aurkezturiko 3 proiektuak garatzeko.

**BIGARRENGOA:** Ordainketa 490.230.20.01.2017 partidatik egingo da

**HIRUGARRENGOA:** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza sailari

**LAUGARRENGOA:** Ibaratik Misio Taldeari erabakia jakinaraztea

### 3.- JUBILATU ELKARTEAK

BIZI-NAHI Ibarako jubilatutako elkarte bakarra da. Urtero bezala, diru-laguntzak eskatzeko epea zabaldu denean, BIZI NAHIko ordezkariak, ekimenen aurrekontua aurkeztu dute. Dokumentu honetan zuzendaritzako kideak, aurreikusten dituzten ekimenen eta balizko defizitaren berri ematen dute, diru-laguntza jaso ahal izateko.

Aurkeztutako jarduera programazioaren arabera eta ezarrita dauden irizpideak aplikatuz, 7.160 euroko diru-laguntza ematea proposatu da. Beti bezala, biz zatitan egingo da ordainketa. Orain kopuru honen %60a eta memoria aurkeztu ostean bigarren zatia.

2017ko ekainaren 23an buruturiko Gizarte Politikak eta Politika Feminista eta Aniztasuna Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

#### ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Onartzea Bizi-Nahi Ibarra Jubilatuko elkarteari 7.160 eurotako diru laguntza ematea.

**BIGARRENGOA:** Ordainketa 481.337.10.00 2017 partidatik egingo da. Kopuru honen % 60 ematea ahalik eta azkarren, hau da: 4.296 € Bigarren zatia, gastuen jatorrizko fakturak aurkeztutakoan ordainduko da.

**HIRUGARRENGOA:** Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza sailari

**LAUGARRENGOA:** Bizi-Nahi Jubilatuko elkarteari erabakia jakinaraztea

#### **5.2.- EUSKAL FONDOA PROIEKTUARI DIRU-LAGUNTZA EMATEA**

EUSKAL FONDOAK kudeatzen dituen proiektuen berri eman zen. honako proposamenak egin ziren:

- El Salvador. Morazán herrian, edateko ura eta higiene-zerbitzu sanitarioak eskuratzea: emakumeak ahalduntzea eta gizarteratzea Morazango iparraldean .2.fasea.P263K. proiektua: 3.000 euro ematea.
- RASD-Tinduf. Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan garraio-azpiegitura laguntzea. Kudeaketa-elektronikoko ibilgailuen lantegia. P264K proiektua: 3.000 euro ematea.

2017ko ekainaren 23ko Gizarte Politikak eta Politika Feminista eta Aniztasuna Batzordearen irizpena kontutan izanik, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

#### ERABAKIA

**LEHENENGOA:** Onartzea 3.000 euro ematea proiektu honi: El Salvador. Morazán herrian, edateko ura eta higiene-zerbitzu sanitarioak eskuratzea: emakumeak ahalduntzea eta gizarteratzea Morazango iparraldean .2.fasea.P263K.

**BIGARRENGOA:** Onartzea 3.000 euro ematea proiektu honi: RASD-Tinduf. Saharako errefuxiatuen kanpamenduetan garraio-azpiegitura laguntzeako Kudeaketa-elektronikoko ibilgailuen lantegia P264K



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

HIRUGARRENGOA: Ordainketa 490.230.20.01.2017 partidatik egingo da  
LAUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea Kontuhartzailletza sailari

## **SEIGARRENA:**

### **GALDE ESKAERAK**

#### **6.1 ALKATE DEKRETUAK EGIKARITZEAN DERRIGORREZ IDAZKARIAK SINATU BEHARK DITU ALKATEAK SINATU AURRETIK**

EH Bilduko zinegotziek Gizarte Zerbitzu arloan diru-laguntzak emateko orduan eman den prozedura akatsa aztertu ondoren Alkate Dekretuek legezatasun osoa izan dezaten Idazkariak aurrez aztertzea eskatzen dute.

Alkate Dekretuek legezatasun arloan aurrekontrol bat izatea beharrezkotzat ikusten dute.

Idazkariak argitzen du bera ez dela Alkate Dekretuen legezatasunean erantzule baldin eta ez baditu aurrez berak ikuskatzen. Arazoak sortzen dira eskumena duen organoak onartu dituen edo ez aztertzeko orduan, eta askotan erabakien berri ez du izaten Udalbatzan aurkezten diren arte (askotan berandu izaten da eta ezin da prozedura zuzendu).

EH Bildu Koalizioko zinegotziek diote beste Udal batzuetan derrigorrez Idazkariaren sinadura behar izaten dutela Alkate Dekretuek eta alkateak ez dituela sinatzen aurrez Idazkariaren oniritzia izan gabe.

Guztia aztertu ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

### **ERABAKIA**

LEHENENGOA: Alkate Dekretuak baliozkotasuna izateko aurrez Idazkariak sinatu beharko ditu. Ondorioz Dekretuen plantillan derrigorrez alkatearen sinaduraz gain idazkariaren sinadura jarri beharko da.

BIGARRENGOA: Erabaki hau indarrean sartuko da 2017ko irailaren 4tik aurrera.

HIRUGARRENGOA: Erabaki honen berri ematea udal langile guztiei eta alkateari.



**IBARRAKO UDALA**  
(Gipuzkoa)  
Euskal Herria

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu and.ak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita zortzi direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut